

**Bideoaren erreferentzia:** Bagoaz A2B11. **Josu hizlari**

**Maila:** A2

**Helburua:** Ezagun nahiz ezezagunei argibide errazak emateko gai izatea: zerbait nola egin.

**Funtzioa:** Solaskidearengan eragitea: aholkuak eman.



**Azken jarduera:** Gelakideei aurrez aurre zerbait saltzeko aurkezpena prestatzen duenak aurkezpen hori hobetzeko aholkuak jasoko ditu.

**Adierazpide linguistikoak:**



- Baldintzazko esaldiak (baiezkoan/ezezkoan): *Horrela egiten baduzu/ ez baduzu...*
- *Bestela* lokailua: *Egin kasu, bestela ez da ondo aterako.*

## 1. IKUSI AURRETIK

### 1.1. Josu hizlari zerbait saltzeko





  Binaka lauki bat osatuko dute. Laukiaren alde batean aurrez aurreko aurkezpenak egiten diren hainbat toki/egoera aipatzen dira. Toki/egoera horietan aurkezpen horiek *zertarako* egiten diren adostu beharko dute, eta idatzi.

Ondoren, aurrez aurreko salmentaren inguruko galdera bati erantzun beharko diote, bakarka. Eta aurrez aurreko saltzaile/hizlari on baten ezaugarri batzuk aukeratu: ezaugarri-zerrenda bat dute.

  Aukeratutako erantzunak ikaskideek euren artean alderatu beharko dituzte. Alderaketa horretan sor daitekeen ideia-trukaketa baten adibidea ematen zaie aurretik.

## 2. IKUSI BITARTEAN

### 2.1. Liburutegira




    Ulermen-ariketa egin dezatela, hiru galderei erantzunez, bideoaren lehen zatia entzun bitartean. Galderen erantzunak adosteko, lehen zatia berriz ikus dezakete.

**Ariketaren erantzuna:** *Liburuzainak badu Josu eta Amairen berri?: Bai. Zer egitera doaz liburutegira?: Leku bila doaz Josuren aurkezpena entseatzeko. Aurkitu dute nahi dutena: Bai.*

*Oharra: Nahi izatera, erantzunak arrazoitzeko eskatu, esan dezatela zerk eman dien arrastoa.*

  Ariketaren soluzioak binaka baieztatzeko, ikus dezatela berriz dagokion zatia.

## 2.2. Josuren aurkezpena

   *Aukera anitzeko galderak* moldeko ulermen-ariketa. Nahi izatera, bideoaren azken partea ikusi aurretik esaldiak irakur ditzatela. Ariketa bakarka egitekoa da aurrena, eta gero erantzunak adostekoa. Adosteko orduan, nahi bada, ikusitako zatia berriro ikusi.

### Erantzunak:

Zergatik dago pozik Josu?: **Entsegurako leku egokia dutelako.**


Zergatik haserretu da hasieran Amaia Josurekin?: **Josuren aurkezpena ez zaiolako egokia iruditu.**

Zergatik haserretu da berriz Amaia Josurekin?: **Produktuaren berrikuntzak aipatu ez dituelako.**




*Oharra: Testua ezertxo ere ulertu gabe erantzunen bat asmatzeko aukera badagoenez, galdetzea dago nola jakin duten erantzuna, zerk eman dien arrastoa, eta bideoa denez, irudietan ikusitako zerbaitek arrastoa jarri ote dituen.*

## 3. IKUSI ONDOREN

### 3.1. Hizkuntzan arreta

 Bideoko egoerari lotutako edo egoerarekin zerikusia duten hainbat esaldi ematen zaizkie, aholkua emateko direnak. Delako egoera hori bideoaren bigarren zatian dago.

### 3.2. Aurkezpenaren ondoren aholkuak

   Ikasleek gelakideen aurrean aurkezpen bat egin behar dute, ahoz. Horretarako, transkripzio-zati bat ematen zaie, eta Josuren jarduna eta baieztapenak aztertu beharko dituzte, zer hitz/esaldi edo ideia dituzten baliagarri ahozko jardunerako. Hizlariak euren gaia aukeratu beharko dute. Ezaugarri nagusiak zein diren ere erabaki beharko dute, eta zer nabarmendu behar den eta nola zerbait saltzerakoan, aurkezterakoan...

Hizlaria entzuten dutenek hitzaldia/aurkezpena hobetzeko aholkuak eman beharko dizkiote, 3.1. atalean azaldutakoa aintzat hartuta.

*Oharra: txandakatu hizlari/entzule rola. Zeren Josuren jarduna hizlari izan behar direnek bakarrik irakurtzen badute, entzuleak fase horretan zereginik gabe geratzen dira. Hori batetik, bestetik hitzaldia prestatzerakoan nahiz hobetzeko aholkuak emateko garaian, IKUSI AURRETIK faseko "Zer egin behar du saltzaile/hizlari batek arrakasta izateko?" galderari ahal zaio erreparatu.*

### Interesetzen zaizu:

Nahi baduzu, aholkuak ere lantzen dira hurrengo sekuentzian. [Minez nago](#)

**TRANSKRIPZIOA**

**LIBURUZAINA.**— Arratsalde on!

**JOSU.**— Arratsalde on, bai.

**AMAIA.**— Begira, badakizu master bat prestatzen ari garela. Datorren astean Josuk aurkezpen bat egin beharra dauka. Horregatik, entseatu nahi dugu. Badaukazue gelaren bat ozenki hitz egiteko?

**LIBURUZAINA.**— Zatozte nirekin!

**LIBURUZAINA.**— Nire ustez, leku egokia da hau. Hala ere, ez ezazue zarata gehiegirik egin, mesedez!

**AMAIA.**— Leku aproposa da, bai! Eskerrik asko!

**LIBURUZAINA.**— Ez horregatik. Agur!

**ETENA**

**AMAIA.**— Aproposa iruditzen zaizu lekua?

**JOSU.**— Moldatuko nintzen!!!!!! bestela ere, baina, tira, entsegu ederra egiteko aukera daukagu hemen.

**AMAIA.**— Ondo da. Gaur aurkezpena zuk egingo duzu eta nik bihar, ados?

**JOSU.**— Bai, bai, bai.

**AMAIA.**— Ba hasi zaitez nahi duzunean.

**JOSU.**— Bai... oraintxe hasiko naiz...

**JOSU.**— Egun on. Nire gaurko hitzalditxoan, komunikazio-plangintza batean sare sozialak nola erabiltzen diren azalduko dut. (...) Hasteko, erakunde bati buruz zer kontatu nahi dugun erabaki behar da; gauzarik inportanteenak kontatu behar dira. (...) Emm, eduki zehatzak aukeratu eta gero, Twitterren idatziko ditugu; badakizue, 140 karakteretan. (...) Facebook Twitterrekin lotuko dugu. Horrela, berri bakarra eginda, bi lekutan agertuko da...

**AMAIA.**— Josu, hori guztia edonork daki. Berrikuntzak aipatu behar dituzu; bestela, jendea aspertu egingo da.

**JOSU.**— Bai, ados... Argazkiak igotzeko, berriz, Instagram aukeratu dugu, oso eroso delako.

**JOSU.**— Orain zer gertatzen da?

**AMAIA.**— Josu, horrela jarraitzen baduzu, zure komunikazio-kanpaina ez dizu inork erosiko. Gauza berriak, gizona!

**JOSU.**— Aizu, hobeto egiten badakizu, atera zu!

**AMAIA.**— Nahi duzun bezala. Nik neurea bihar aurkeztuko dizut, eta bikaina izango da.

**JOSU.**— Seguru!